

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Tokiko gobernu batzarrari eskumenak eskuordetzan ematea

Aguraingo alkateak, 2019ko ekainaren 28ko dekretu bidez, ebazpen hau eman du:

Ikusi da alkateak dituen eskumenei buruz artikulua hauetan xedatutakoa: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua, Toki araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 24. artikulua, eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41. artikulua.

Ikusi da alkateak eskumen batzuk Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu diezazkiokeela, artikulua hauen arabera: Euskadiko Toki Erakundeen Legearen 27. artikulua, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua, eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43. eta 44. artikulua.

Ebazten dut

I. Tokiko gobernu batzarrari eskumen guztiak eskuordetzea, alkateak organo horri eskuordetu diezazkiokeen guztiak, hauek izan ezik:

- * Udala ordezkatzeari.
- * Udalaren zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- * Hasiera batean onestea hirigintza kudeaketako tresnak eta urbanizazio proiektuak.
- * Obra txikiko lizentziak, jarduera lizentziak eta irekiera lizentziak ematea, dagokien zergen eta tasen likidazioa barne.
- * Gai hauen inguruko baimenak ematea eta dagokien zergen eta tasen likidazioa egitea: edateko uraren hornidura, saneamendua, hilerria, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta terrazak.
- * Kontratazio organo den heinean, obra, hornidura eta zerbitzuen kontratuei dagozkien eskumenak, kontratu txikien bidez.

II. Eskumen hauek tokiko gobernu batzarra eratzen denetik izango dituzte ondorioak.

III. Udalbatzari horren guztiaren berri ematea, egiten den lehenengo osoko bilkuran.

IV. Argitara bedi ebazpena ALHAOn.

Agurain, 2019ko ekainaren 28a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES